

ASTIGARRAGA

## Sagardoa, musika eta jolasak, gaur Zipotza Elkartearen urteurrenean

Astean zehar hainbat ekintza burutu dira 25 urteak ospatzeko. Bihar arratsaldean pilotalekuan egingo den ekitaldiarekin amaituko da prestatutako egitaraua

06.11.10 - 03:00 - MARÍA CORTÉS [dvastigarraga@telefonica.net](mailto:dvastigarraga@telefonica.net) | ASTIGARRAGA.

Zipotza Kultur Elkarte bere 25. urteurrena ospa-tzen ari da aste honetan. Egitarau oparoa prestatu du horretarako hainbat ekintzekin. Guztia martxan jartzeko Astigarragako herritar askoren laguntza izan dute eta beraiekin batera ari dira disfrutatzen azteazkenean hasi ziren ekitaldietan.

Lehenengo egunetan sukalde ikastaroa jarri zen martxan Fede Patxa sukaldariarekin eta bertan hainbat errezeta irakatsi zien bertaratu ziren guztiei. Bestalde, ardo-kata egin zen elkartearen eta Maria Jesus Menak eta Patxi Mujikak ardozale baten inimiziaz zer egin eta nola hasi ardoa dastatzen erakutsi zuten. Urteurrena ospatzeko Mikel Agirrek ere hitzaldia eman zuen Kultur Etxeko tailer gelan. Perretxiko zale bezala GPS-aren erabileraz hitz egin zuen. Gazteek elkartearen antolatutako beraien afaria eta afal ostean, 2008ko II. Gazte Olinpiadetako antzerkiko bideo proiektzioa ikusi zuten.

Egitarauarekin jarraitzeko, gaur, goizeko 7:30ean mendi irteera egongo da. Zipotza Elkartearen geratu eta perretxikoak biltzera abiatuko dira. Hauek birhako erakusketarako erabiliko direlarik. Arratsaldean haurrak izango dira protagonista beraientzat prestatutako jolas eta tailerretan. Joseba Barandiaran plazan izango dira 16:30ean eta Xagu-Xar aisialdi taldearen laguntzarekin burutuko dira.

Eguna ondo bukatzeko, 18:00etatik aurrera, Joseba Barandiaran plazan bertan tortila lehiaketa izango da herriko talde eta eragile desberdinekin. Gainera ez dira faltako sagardo dastaketa, musika, trikilaria eta dultzaineroak arratsaldean zehar.

### Azken ekintzak

Bihar bukatuko dira 25. urteurrenako ekintzak. Goizeko 11:00etan Mikologi Jardunaldiak antolatutako dira. Bezperan bildutako perretxikoekin, erakusketak egongo da. Pieza bakoi-tza sailkatuta egongo da bere datu eta informazio osoarekin. Perretxikoak gustuko dituztenentzat dastaketa ere egongo da, modu desberdinetara eginda, gainera. Astigarraga taldearen laguntzarekin umeen-tzak margo lehiaketa egongo da eta ondoren, marrazkiekin erakusketak. Bi ekintza hauek Joseba Barandiaran plazan izango dira.

Eguerdian, 14:30ean, Herri Bazkaria egongo da pilotalekuan. Antolatzaileek adierazi duten modura, «elkargune handi bezala planteatu dugu herri bazkari hau, jende mordoak egongo da gonbidatuta eta bazkal ostean, kantu saio bat burutuko da, giroa alaitzeko». Beraz bazkarira animatzen direnentzat, txartelak Zipotza, Ekaitz eta Ikatz tabernetan egongo dira salgai 15 eurotan eta haurrentzako menua 10 eurotan.

Arratsaldean 25. urteurrenako ekitaldi garrantzitsuena izango da eta bertan «urte hauetan guztietan gertatutakoa errepatatuko da. Herritar askok hartuko dute parte, besteak beste, dantzariak eta bertsoariak egongo direlarik». Herriko pilotalekuan izango da ekitaldia, 18:00etatik aurrera.

### TAGS RELACIONADOS

sagardoa, musika, jolasak, gaur, zipotza, elkartearen, urteurrenean

### ANUNCIOS GOOGLE

#### Cursos en Guipuzcoa

Centro de Formación en Guipuzcoa: Oposiciones, Titulaciones, Cursos.  
[www.MasterD.es/Cursos\\_Guipuzcoa](http://www.MasterD.es/Cursos_Guipuzcoa)

#### Hotel Punta Monpas

Para familias, la playa y surf Cerca del centro, del Kursal  
[www.hotelpuntamonpas.com](http://www.hotelpuntamonpas.com)

#### Cursos FP en Donostia

Obtén el Título Oficial de FP1 Con Prácticas y Bolsa de Empleo!  
[www.CursosFormacionProfesional.com](http://www.CursosFormacionProfesional.com)

#### Vivienda Donostia

Viviendas Que Se Adaptan A Tu Estilo De Vida. Infórmate Aquí!  
[www.GrupoEibar.com](http://www.GrupoEibar.com)

### ENLACES VOCENTO

<a href="#">ABC.es</a>	<a href="#">Hoy Digital</a>
<a href="#">El Correo</a>	<a href="#">La Rioja.com</a>
<a href="#">nortecastilla.es</a>	<a href="#">DiarioVasco.com</a>
<a href="#">Elcomerciodigital.com</a>	<a href="#">Ideal digital</a>
<a href="#">SUR digital</a>	<a href="#">Las Provincias</a>
<a href="#">Qué.es</a>	<a href="#">El Diario Montañés</a>
<a href="#">La Voz Digital</a>	<a href="#">Laverdad.es</a>
<a href="#">Punto Radio</a>	<a href="#">Finanzas y planes de pensiones</a>
<a href="#">hoyCinema</a>	<a href="#">hoyMotor</a>
<a href="#">Infoempleo</a>	<a href="#">Autocasion</a>
<a href="#">11870.com</a>	<a href="#">Hoyvino</a>